

**GRADU AMAIERAKO LANA EGIN ETA
DEFENDATZEARI BURUZKO
ARAUTEGIA
GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA
(EIBARKO ATALA)**

**ENERGIA BERRIZTAGARRIEN
INGENIARITZA GRADUA**

Ataleko Batzarrak 2019ko ekainaren 18an onartua

ZIOEN AZALPENA

Urriaren 29ko 1393/2007 errege dekretuak, 861/2020 errege dekretuak eraldatuta, III. kapituluan, graduiko ikasketa ofizialei buruzkoan, xedatzen du ikasketa horietan, gradu amaierako lan bat egin eta defendatu beharko dela eta beste atal batean gehitzen du gradu amaierako lanak 6 eta 30 kreditu bitartean izango dituela, ikasketa planaren bukaerako fasean egin beharko dela eta tituluari lotutako gaitasunen ebaluazioa egitera bideratuta egon beharko dela. Ez du lana egin eta ebaluatzeko beste xedapenik jasotzen eta hortaz, unibertsitate bakoitzak arautu beharko du bere autonomiaz baliatuta.

Bestalde, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko Arautegiak (Gobernu Kontseiluak 2015eko martxoaren 12an onartua; 2015ko apirilaren 13ko EHAAn argitaratua Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko errektoreordeak 2015eko martxoaren 26ko erabakian emandako aginduren bidez) zehazten ditu Gradu Amaierako Lanetarako irizpideak eta prozedurak bateratzeko eta plangintzan eta ebaluazioan jarduketa homogeen bat bermatzeko. Arautegiko 14. artikuluan jasota dago ikastegi bakoitzak arautegia egokitu ahal izango duela ikastegian ematen diren graduiko tituluaren ezaugarrietara egokitzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, arautegi honetan zehaztu ditugu Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan, Eibarko Atalean (aurrerantzean GIE-Eibar), ematen den Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradua lortze aldera egin beharreko Gradu Amaierako Lana (aurrerantzean, GRAL) osatu eta aurkezteko.

1. ARTIKULUA. HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA

1.1 Arautegi honek Energia Berriztagarrien Ingeniaritza Graduak GRALak definitu, egin, defendatu, kalifikatu eta izapidetzeko jarraibideak biltzen ditu. Arautegi honek garatzen eta osatzen du Gobernu Kontseiluak 2015eko martxoaren 12an onartutako eta 2015eko apirilaren 13an EHAAn argitaratutako oinarritzko arautegia.

1.2 Araututako jarduera profesionaletan aritzeko gaitasuna ematen duten tituluak GRAL, kasuan kasuko tituluak egiaztatze baldintzak zehazten dituen aginduan xedatutakoaren arabera arautuko da; arautegi hau ere aplikatuko da, baina betiere aipatutako aginduaren menpe egongo da.

1.3 Arautegi honen edukia, besteak beste, ebaluazio sistemaren, kredituen transferentzia eta onarpenaren eta ikasleen mugikortasunaren arloetan indarrean dauden UPV/EHUko gainerako arau eta prozedurekin osatuko da.

1.4 Arautegi honek UPV/EHUko araudia garatzen du Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak Eibarko Atalean ematen duen Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Graduaren ezaugarrietara egokitzeko.

2. ARTIKULUA. GRADU AMAIERAKO LANAREN IZAERA

2.1 GRALa gauzatzeko, ikasleek, banaka, proiektu, memoria edo azterlan orijinal bat egin behar dute, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduako ikasketa aldiari jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira.

2.2 GRALa titulazioarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari eta, oro har, ikaslearen ikasketa arlokoak izango diren datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeari begira egingo da, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiari edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezzen.

2.3 GRALa defendatu eta ebaluatu ahal izateko, egiaztatu egin beharko da ikasleak ikasketa planeko gainerako gai guztiak gaindituta dituela. Hortaz, GRALari dagozkion kredituak izan ezik, graduako titulua lortzeko beharrezkoak diren gainerako kreditu guztiak dituela.

2.4 GRALa Jabetza intelektualari buruzko legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duena izango da, GRALa esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera.

3. ARTIKULUA. IZEN-EMATEA ETA DEIALDIAK

3.1 GRALerako matrikula unibertsitateak matrikula egiteko ezarriko duen epe orokorrean egingo da, edota kasuan kasuko ikasturtean zehar, esleituta dituen kredituetarako ezarritako prezio publikoak ordainduta. Matrikula hori egiteko, ikasleak bete egin beharko ditu GRALaren defentsa egin ahal izateko 2.3 atalean ezarritako baldintza orokorrak.

3.2 Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte akademiko bakoitzean bi deialdi ofizialetara aurkezteko, Gobernu Kontseiluak onartutako egutegi akademikoan zehaztutakoarekin bat. Lana unean uneko ikasturtean ezarritako deialdietan defendatu ez edo gainditu ez duen ikasleak matrikula egin beharko du berriro hurrengo ikasturte akademikoan.

3.3 Ikasleek GRALa zein hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duten zehaztuko dute.

3.4 GRALen defentsak ikasturtean zehar banatuko dira.

3.5 GRALaren ebaluazioaren akta unibertsitateko ebaluazio arautegiari jarraiki itxi beharko da eta epaimahaiko idazkariaren ardura izango da akta behar bezala bete eta ikastegiak zehaztutako prozedurari jarraiki administrazio zerbitzuei

helaraztea. Horrez gain, ikastegiko zuzendariari dagokio artikulua honetan ezarritakoa betetzen dela zaintzea.

4. ARTIKULUA. ZUZENDARIA, HURA ESLEITZEA ETA LANERAKO GAIA AUKERATZEA

4.1 GRALa esleitzeko ikasleak ezin izango ditu eduki 72 kreditu baino gehiago gainditzeke, GRALaren kredituak barne.

4.2 Gradu amaierako lanaren zuzendaria izango da Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Graduan eskolak ematen dituen saileko irakasle bat edo GIE-Eibarrera atxikitako bat. Irakaslearen ardura izango da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, ikasleari lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idaztea ere (II. Eranskina – Zuzendariaren txostena).

4.3 GRALak zuzendari bat baino gehiago izan ahalko ditu.

4.4 Unibertsitateari lotutako doktoreek ere zuzendu ahalko dituzte GRALak, baldin eta graduan irakaskuntzarik duten sailen bateko kide den edo gradua irakasten duen GIE Eibarri atxikita dagoen zuzendarikiderik badago.

4.5 Ikasleak GRAL osoa edo horren zati bat UPV/EHU ez den erakunde baten egiten badu, praktika hitzarmen baten barruan, GRALa unibertsitateaz kanpoko pertsonak zuzendu ahalko dute baina kasu horretan 4.2 ataleko baldintzak betetzen dituen zuzendarikide-tutore bat egon beharko da.

4.6 Jarraian adierazten diren lau aukera hauen arabera esleitu daitezke GRALak:

4.6.1 **Sailek proposatuak:** Irakasleek, UAGG-n eskainiko dituzte GRALak. Hasiera batean, ikasleek GRALa aukeratuko dute proposatutako artean, gehienez 3. Esandako lehentasunen artetik, GRALen Batzordeak haietako bat esleituko du, batez besteko nota onenaren irizpidearen arabera.

4.6.2 **Ikasleek proposatuak:** Ikasleek berek aukeratutako GRALren proposamena egingo diote Gradu Amaierako Lanaren Zuzendariari (GRALZ). Ikasleak proposatutako eta GRALZak egiaztatutako GRALa, zuzenean esleituko zaio proposatzaileari.

4.6.3 **Enpresek proposatuak:** UAGG-ren bidez aurkeztuko dituzte enpresek beren proiektuen eskaintzak. GRALZak balioetsiko du enpresak eskainitako gaiak

entitate nahikoa duen edo paraleloan edo enpresako egonaldia eta geroago osatu behar den. Enpresaten egiten diren GRALak, ikaslearekin adostutako irakasleak zuzenduko du.

4.6.4 Beste unibertsitateetan ikasleen mugikortasun programen baitan egindakoak: ikasleak idazkaritzan aurkeztu behar du lortutako kalifikazioaren egiaztatzea, truke programaren arabeko kalifikazioa ezartzeko.

4.7 Lehen aipatutako kasu guztietan, GRALza den irakaslea, egindako proposamena baliozkotzeko, eta hura, ikasleek proposatutakoren kasuan, programan sartzeko arduraduna izango da.

4.8 Ikasturte bakoitzean, aurretiaz ezarritako epean, bi deialditan egingo da GRALen esleipena.

5. ARTIKULUA. EPAIMAHAIA.

5.1 GRALaren zuzendariak proposatuko du nola eratu behar den epaimahaia.

5.2 Epaimahai bakoitza hiru kidek eta gutxienez, ordezeko batek osatuko dute, eta guztiak izan beharko dira graduako titulua irakasten den ikastegiko irakasleak.

5.3 Epaimahai bakoitzean epaimahaiburu bat eta idazkari bat egongo dira.

5.4 Mugikortasun programa baten barruan egindako GRALak, indarrean dagoen arautegiaren arabera ebaluatuko dira.

6. ARTIKULUA. GRALaren AURKEZPENA ETA DEFENTSA.

6.1 GRALaren dokumentazioa ADDIn plataforman jarri eta zuzendariak onartu ondoren, ikasleak defentsa eskatu ahal izango du.

GRALaren zuzendariak behin onartuta, epaimahaia osatuko da eta defentsarako eguna, ordua eta toki zehaztu. Defentsa egiteko gutxien dela astebetera igaro beharko da eta gehienez, hiru aste, epaimahaiaren osaera behin jakinarazita. (I. eranskina) Idazkaritzak emango du deialdiaren berri horretarako tauletan dagokion iragarkia eginik.

6.2 Abuztuan eta Gabonetako nahiz Aste Santuko oporraldietan izan ezik, urteko edozein hilabetetan defendatu daiteke lana.

6.3 Ikasleak aurrez aurre defendatu beharko du GRALa.

6.4 Titulua egiaztatzeko memorian ezarritakoaren arabera graduan eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu ahalko da lana, baldin eta hizkuntza horiek dakizkiten epaimahaiak osatu ahal badira. Edonola era, GRALa autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.

6.5 Ikasle bakoitzak GRALaren defentsa egiteko gehienez 30 minutu eta gutxienez 20 minutuko denbora izango du. Denbora tarte horretan, GRALaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. Ondoren, epaimahaiko kideek egin diezazkioketen galdera, argibide, komentario eta iradokizunei erantzun beharko die.

6.6 Ikasleak egokitzat jotzen baldin badu, Zentroan dauden ikus-entzunezko baliabideak, baliabide informatikoak, etab. erabili ahal izango ditu. Aipatu baliabideen eskaeraren kudeaketa, GRALZak egin beharko du.

7. ARTIKULUA. EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIOA

7.1 Ikaslearen aurkezpena bukatutakoan eta zuzendariaren txostena ikusitakoan (II. eranskina), epaimahaiak ikasleari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du, Gradu Amaierako Lanaren gidaliburuan argitaratutako irizpideen arabera eta tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoari jarraiki (IV. eranskina). Ikasleak lortutako gaitasunak ebaluatzeko, III. Eranskina (GRALaren balioespena) erabiliko da.

7.2 Ikasleak lana gainditzen ez badu, epaimahaiak lana hobetzeko iradokizunak jasotzen dituen txosten bat helaraziko dio ikasleari, lana berriz ebaluatzen denerako. Zuzendariari ere txostenaren kopia bat bidaliko zaio.

7.3 Kalifikazioa epaimahaiak zehaztuko du, eta 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta kalifikazio hori letraz ere adieraziko da:

Aurkezteke (AG)

0 - 4,9: Suspentso (S).

5,0 - 6,9: Nahiko (N).

7,0 - 8,9: Oso ongi (OO).

9,0 - 10: Bikain (B).

Deialdiren batean defentsa eskubideari uko eginda, aurkezteke (AG) jarriko da.

“Ohorezko matrikula” aipamena eman ahal izango zaie 9,0 edo kalifikazio handiagoa lortu duten ikasleei, baina aipamen kopurua ezin izango da izan gai horretan ikasturtean matrikulatutako ikasleen % 5 baino handiagoa. Ohorezko matrikulen aipamenetarako proposamenak ikasturte bakoitzaren hasieran argitaratuko diren epean jakinaraziko dira. Ohorezko matrikulak Proiektu Batzordea osatzen duten irakasleek emango dituzte proposamenak aztertu ondoren, eta aipamen kopurua ezin izango da izan deialdi horretan aurkeztutako GRALen % 5 baino handiagoa. Lehenengo deialdian aipamen kopurua ez bada % 5era heltzen, bigarren deialdian % 5era heldu arte osatu ahal izango da kopurua.

7.4. GRALen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak unibertsitateko ebaluazio arautegiari jarraiki egingo dira baina epaimahaia tartean dagoenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaia berak egingo du eta, ondoren, ikastegiko erreklamazio batzordeak emango du erabakia; erabaki horren kontra, azkenik, gorako errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko errektoreari.

7.5. Nolanahi ere, GRALaren kalifikazioa urriaren 31 baino lehen ageri behar da matrikulatutako ikaslearen espedientean, gai honi dagokion atalean.

8.ARTIKULUA. KONFIDENTZIALTASUNA

GRALeko edukia konfidentziala izan daiteke, eta horrelakoetan, GRALaren zuzendariak adierazi beharko du izaera hori.

GRAL konfidentzialak behar bezala identifikatuko dira GAUR aplikazioan. GRALa konfidentziala denean, defentsa ekitaldia ez da jendaurrean egingo, hau da, ikaslea eta epaimahaia baino ez dira egongo.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira Eskolako Batzarrak 2013ko ekainaren 17an eta aurretik onartutako araudiak.

AZKEN XEDAPENA. INDARREAN SARTZEA.

Arautegi hau 2019ko urriaren 1ean sartuko da indarrean.